

Z. VIZCARRA

30
Cristauaren Dotriñaco


liburu chiquia



DTU
23425

(Bizkai'ko) Durango'n, Elosu'ren
etxean saltzen dira, eta ona egin
bediz eskabideak.

Ama-entzako Liburucho osasungarria,
bost sentimo.—Ama Birjiñaren Agertziak
eta Lurdesko Gertaerak, peseta bat.—
Aita Agustin Cardaberaz, Jaincoaren ser-
bitzari andiaren Berri Laburrak, 0,35 p.—
Segur Jaunac esribitu duan **Comunio**
Santua, eguneroco **Comunioa** eta **Mirari**
batzuec, 0,65 p.—**Cristauaren Dotriña**
eguiazcoa, Aita Angel Maria Arcos, Je-
susen Lagundicoac eguiña, Obispo Jau-
naren baimenarequiñ, 0,50 p.—**Urteco**
Domeca guztietaraco Berbaldiac, Aita
Frai Pedro Astarloa-c eguiña, bi liburu,
14 p. —**72 Esaldiac**, Santuen eta Escu-
tapen Miragarrizcoen gañean, Andres
Iturzaeta-c eguiña, bi liburu, 18 p.—**Cu-**
rutze Santearen, Aita gure ta **Ave Marien**
ganeco Eracusaldiac, Aita Frai Pedro
Antonio Añibarro-c eguiña, 1 p. eta 1,50.



H-26292
NF. 26243

ATV
23425



≡ CRISTAUAREN DOTRINACO ≡
LIBURU CHIQUIA

AITA ASTETE'REN DOTRIÑACO LIBURUCHUAN
DAUDEN GAUZARIC BEARRENEN
EZAGÜERA ITZ GUCHITAN,
BIZCARRA'tar ZACARIAS
ERACASLE TA TEOLOJIACO
MAISUAC GAZTELANIZ ANTOLATUA,
ETA APAIZ EUSCILDUN BATEC EUSQUERARA
ITZULIA; AITA SANTUAC DENBORA GUCHIZ ONUZTIC
AGUINDU DUANA GUNPLITUAZ, ZAZPI URTEREQUIN CONFE-
SATU TA COMULGATU BEAR DUTEN
UMEEN ONERACO.

Balioa: amar zentimo bacoitza; eun zortzi pesetan

**Escatu bitez ELOSU'TAR FLORENTINO'REN
MOLDIZTEGUTTA LIBURUTEGUIAN
DURANGO'N. - (BIZCAIAN)**

1911

Victoriae 4 Aprilis 1911.

IMPRIMATUR.

† *Jóseph, Episcopus Victoriensis*

L. S.

Meza bacar batequin, guizonen eta aingueruen alabantza guziaquiñ baño onra andiagoa Jaungoicoari ematen zaio, Mezatan Jaungoicoac Jaungoicoa onratzen dualaco. Eztago munduan ezer ere Aita Beticoaren gogocoagoric, Mezaco Sacrificio Santua baño, bada emen esquintzen zaio bere Seme guziz maitea.

(MAZOK.)

Cristau batec, (naiz izan guiza-semea, naiz emacumea) iduqui lezaquean oituraric onena da egunero Meza entzun eta Jaun-artu edo Comulgatzea.

Aita Santu Pio amargarrenac eman ditu zazpi urte ta zazpi berrogeico parcamenac, **Jesus Maria eta Jose** esaten da bacoitzean.

Elizari deitzen zaio **Jaungoicoaren Echea**, eta ala da eguiaz, anchen dago-laco beti Gure Jauna, eta beragatic da oitura guziz ichusia chistua botatzea, errespeto aiñ andiaz egon bear dan lecu-santu artan.

(JABEDUNA DA)

O A R P I D E A

Bi gauzac ipiñi naute, gueien bat, **Liburucho** au arguitaratzera.

Lenengoa, 1910 garren urte onetaco Abustuaren zortzian, arguitaratu da «**Quam singulari**», deitzen dan Aita Santuaren aguindu bat, esaten duana, umeac confesatu ta comulgatu bear dutela Pascoaco denboran, arrazoiaren ezagüerara eltzen diranean. Gauza bearra zan iduquitzea **Dotriñaco liburucho** bat, itz guchitan adierazteco, zazpi urteco ume baten adimentua arguitu lezaqueten eta ornitu bear duten gauzen ezagüera, betetzeco al ainbatean, cristau bezela dagozquion eguinbearrac.

Bigarrena, Cristau Dotriña eracusten dan Escoletan lan onetaraco arguituco duten probechua, bada **cíclico** deitzen dan eracusteco moduaren zimendu arrazoizcoai dagoquionez, ezta ondo, jaquiera baten zati bacoitza zearo icastea, **guziaren** ezagüeraren bat aurriz iduqui gabe.

Au onela dala, Dotriña ondo eracusten dan Escoletan, au eracutsi bear litzaque, bost zati edo **icasalditan**, eta ez utzi umeai, igarotzen **aurreragoco** zatira, **atzeragocoan** examiñatu ta ontzat eman arte.

LENENGO ICASALDIA. Cristauaren Dotriñaco **Liburu chiquia.**

BIGARRENA. Aita Asteteren Dotriñaco liburuaren lenengo zatia.

IRUGARRENA. Beraren bigarren zatia.

LAUGARRENA. Irugarren zatia.

BOSTGARRENA. Laugarren zatia.

Baita ere icasi diteque Asteteren **irugarren**

zatiera edo **Aguinduac bigarren icasaldian**, confesioraco guziz egoquia dalaco, eta **Cristauaren Dotriñaco liburu chiquian jarri eztegulaco** **Aguinduen esPLICACIoric**, gueiegui ez luzetzeagatic.

Zimendutzat artu det **Asteteren Dotriñaco liburuchoa**, auñe dalaco, orañi artian gueien oitzen dana **Bitoria'co Obispadu onetan**, eta **España'ren lecu ascotan**; guziz ondo ezagutzen badet ere, ez, esan ditudan arrazoiacgatic, ez, berez batu duanagatic, eta ez guizonen estimazioagatic, eziñ inñolarə izango dala, **Pio amargarrenaren Dotriñaco Liburuchoa baño obea**.


Jaungoicoac nai dezala, **fede bat bacarra** degun guzioc, **Dotriñaco liburucho bat bacarra** izango degun eguna, laster arguitaratzea.

Bitoria'co Icasteche edo Seminario nagusian 1910-eco Urriaren 6-an.

Iracurleren baten iritzian arquituco balitz utsuneren bat liburucho onetan, erregutzen zaio berari, eguin dezala mesede, adierazteaz escutitz edo carta baten bitartez, bialduaz au, **Durangoco Elosuren moldiztegui ta liburuteguir**a, utsune ori bete dediñ liburucho au berriz arguitaratzean.

Laster arguitaratuco da, Guipuzcoaco eusqueran, **Cristanaren dotriñaco liburu andiago bat**, Aita Asteterenean zimendatua, galdeera egoqui eta denbora auetan guziz bearrac diranacquiñ.

Cristauaren Dotriñaco Liburu Chiqui onetan dauden galdeera eta erantzuer auec berac, osoric, egongo dira an ere, aldendutzeco, bestela sortuco liraquen, naspillac, liburu andiagura guziro icasteco.



Dotriñaco Liburuchoa itz guchitan

SARRERA

1. GALDEZTEN DET: *¿Cristaua al zera?*
ERANTZUTEN DET: Bai, Jaungoicoaren
graziaz.

2. G. *Cristauac ¿zer esan nai du?*
E. Cristoren guizona.

3. G. **Cristoren guizonaz ¿zer adi-
tzen dezu?**

E. Bataioan aitortu zuan Jesu-Cristo-
ren fedea daucan, eta bere serbitsu san-
tura bearturic dagoan guizona.

4. G. *Jesu-Cristo ¿nor da?*

E. Gu salbatzeagatic, eta guri bizi
izaten eracusteagatic, guizon eguin zan
Jaungoico biziaren Semea.

5. G. *Jaungoico gure Juuna ¿nor da?*

E. Esan eta gogoratu al ditequen baño aundiago ta miragarriago dan izate bat: Jaun bat, neurri gabe ona, jaquin-tsua, altsua, zuzena, gauza guzien asiera ta azquena, onac sariatu eta gaiztoac castigatzen dituana.

6. G. *Irutasun edo Trinitade guziz Santua ¿nor da?*

E. Da Jaungoicoa bera, Aita, Semea eta Espiritu Santua: iru persona bana diranac eta eguzco Jaungoico bat baccarra.

7. G. *Jaungoicoac ¿zertaraco eguiñ du guizona?*

E. Bizitz onetan Jaungoicoa serbitu, eta gero betico bizitzan beraz gozatzeco.

8. G. *Cristauaren ezaubidea ¿zer da?*

E. Gurutze Santua.

9. G. *(Gurutze Santuaren eguiñ ezazu). (1)*

E. **Gurutze Santuaren † señaleagatic,**

(1) Eracusleac eracutsico die umeai, eraguiñaz, nola eguiñ bear duten Gurutzearen señalea, Gurutze Santuaren eta Altaren eguitean.

gure † etsaietatic gorde gaitzatzu, † gure Jauna ta Jaungoicoa.

Aitaren, eta Semearen, † eta Espiritu Santuaren izenean. Amén.

Cristau-Dotriñaren zatiera

10. G. *Cristauac ezagierara eltzen danean ¿zenbat gauza jaquiñ bear ditu?*

E. Lau gauza.

11. G. *¿Zein dira?*

E. Zer sinistu, zer escatu, zer eguin eta zer artu bear duan jaquitea.

LENENGO ZATIA

Cristauac sinistu bear duana

12. G. *Cristaua bezela dituzun eta sinisten dituzunac ¿zer gauza dira?*

E. Erromaco Eliza-Ama Santuac dituan eta sinisten dituanac.

13. G. *Zuc eta arc dituzuen eta sinisten dituzuenac ¿zer gauza dira?*

E. Fedeco Articuluac, batez ere Credoan dauden bezela.

14. G. *Fedea izer gauza da?*

E. Icusi ezteguna sinistea.

15. G. (*Esan ezazu Credo.*)

E. (1) Sinisten det Aita Guzialdun,
zeru-lurren Eguilleagan;

(2) Eta bere Seme bacar, Jesu-Cristo,
gure Jaunagan,

(3) Sortua izan zana Espiritu Santua-
ren eguitez, eta jaio zana Maria Birjiña-
gandic;

(4) Padezitu zuan Pontzio Pilatosen
mendan; izandu zan gurutziltzatua, illa
ta obiratua;

(5) Jetsi zan infernuetara; irugarren
egunean piztu zan illen artetic;

(6) Igo zan zeruetara, an dago jarriric
Jaungoico Guzialdunaren escuico aldetic;

(7) Andic etorrico da biziac eta illac
epaitzera.

(8) Sinisten det Espiritu Santuagan,

(9) Eliza Santu Catolicoa, Santuen Al-
cartasuna,

(10) Pecatuen barcazioa,

(11) Araguiaren piztutzea,

(12) Eta betico bizitza. Amén. (1)

(1) Eztegu uste gauza bearra dala, Astetec
dacazquian Fedeco amalau Articulua emen
ipintzea, amabi Articulutuan **Credo** ipini degun
ezquero, au dalaco gaurco egunian eguiñ oi dan

16. G. *Condenatuen infernua izer da?*

E. Condenatuen infernua da, pecatu mortalean iltzen diranac juaten diran lecuia, beticotasun guzian tormentatuac izateco.

17. G. *Gloria edo Zerua izer da?*

E. Bizitzaric onena, ondasun guziac beragan dauzcana, gaitzic batere gabe, infernuan gaitz guziac arquitzen diran bezela onic batere gabe.

BIGARREN ZATIA

Cristauac escatu bear duana

18. G. *Orazio equitea izer gauza da?*

E. Da Jaungoicoagana biotza jaso ta berari mesedeac escatzea.

19. G. *Orazioetan onena izeiñ da?*

E. **Aita Gurea.**

20. G. *¿Zergatic?*

E. Apostoluen escabidez Jesu-Cristoc bere aoz esau zualaco.

partizioa (Pesch, t. VIII, n. 192) eta baita Trento Contzilio eta Pio X garrenaren Catezismoetan ontzat ipiñia.

21. G. (*Esan ezazu Aita Gurea*).

E. Aita gurea, zeruetan zaudena,

(1) Santificatua izan bedi zure izena.

(2) Betor gugana zure erreinua.

(3) Eguin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere.

(4) Gure eguneroco oguia gaur eman zaiguzu;

(5) Eta barcatu gure zorrac, guc gure zordunai barcatzen diztegun bezela;

(6) Eta ez utzi tentazioan erortzen;

(7) Baizic gorde-gaitzatzu gaitzetic.

Amén.

22. G. *¿Batez ere Ama Birjiñari zer orazio esaten diozcatzu?*

E. Agur Maria ta Salbea.

23. G. (*Esan ezazu Agur Maria*).

E. Agur, Maria, graziaz betea; Jauna zurequiñ; bedeincatua Zu andre guzien artean, eta bedeincatua zure sabeleco frutu, Jesús.

Santa Maria, Jaungoicoaren Ama, erre-gutu ezazu gu pecatariocgatic, oraiñ eta gure eriotz-orduan. Amén.

24. G. (*Esan ezazu Salbea*.)

E. Agur, Erreguiña ta Ama erruqui-tsua, bizitza, gozotasun eta gure esperantzza, agur.

Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestatuoc; zugana gaude, zizpuruz eta negarez malcozco ibar ontan.

Ea, bada, gure bitartecoa, zure begui erruquitsu oiec, gugana itzuli itzatzu, eta, erbeste onen ondoren, Jesus, zure sabeleco frutu bedeincatua, eracutsi zaiguzu.

¡O biotz biguña! ¡O erruquitsua! ¡O Maria Birjiñ gozoa!

Gure aldez erregu zazu, Jaincoaren Ama Deuna, Cristoren aguinsarien diña eguin gaitean. Amén.

25. G. (*Esan ezazu Gloria Patri eusqueraz.*)

E. Gloria Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.

Lenendic zan bezela, oraiñ eta beti eta betiraunde guzietan. Amén.

26. G. (*Esan ezazu Gloria Patri latinez.*)

E. Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum. Amén.

27. G. (*Contriziozco Eguintza esan ezazu.*)

E. Jesu-Cristo nere Jauna, Jaungoico

ta guizon eguizcoa, nere Eguille, Aita ta Salbatzallea, Zu zerana zeralaco ta gauza guziac baño gueiago maitetzen zaitudalaco, damu det biotz guzitic zu ofenditu izana.

Artzen det asmo erabaqui bat beñere gueiago pecaturic ez eguiteco, confesatu, ematen zaidan penitencia cunplitu, eta zu ofenditzeco bide guzietatic aldentzeco.

Esqueintzen dizquitzut nere bizia, lan eta nequeac, nere pecatu guzien ordañeraco; eta ustea daucat zure ontasun eta erruqui neurri gabea, barcatuco dizquidatzula guziac, zure Odol guziz baliotsu, Pasio ta Eriotzaren merezimentuacgatic, emango didazula grazia ondutzeco eta zure serbitsu santuan nere biziaren azqueneraño irauteco. Amen. (1)

(1) Etzaitte beñere oeratu debozio guziaz au errezatu gabe. Izanic guziz andia bere baliua, eracusleac icusi erazico dio umeari, al guzia eguñaz bere biotzian oso itsatsiric guelditu dizaion, zeñ gauza bearra dan jaquitea, nola eguin bear dan **contriziozco Eguintza**, batetic beren eriotz orduraco, ordu au eldu dizaiequelaco usteric gutchien duten denboran, absoluzioa emango dien apaizic urrian eztutela; eta bestetic, beste ezeren laguntzaric gabe illtzen daudenai, ondo illtzen laguntzeco, abec salba ditzaquelaco **contriziozco Eguintza** bat ondo eguiten lagunduaz.

28. G. (*Esan ezazu itz guchitan contriziozco Eguintza.*)

E. Nere Jaungoico eta Jaun Jesu-Cristo, neurrigabe ona zeralaco, damu det biotz guzitic, Zu ofenditu izana; lenago ill pecatu eguiñ baño. (1)

IRUGARREN ZATIA

Cristauac eguiñ bear duana

29. G. (*Esan itzatzu Jaungoicoaren Legueco Aguinduac.*)

E. Jaungoicoaren Legueco Aguinduac amar dira; lenengo irurac Jaungoicoaren onrari dagozquionac, ta beste zazpiac lagun urcoaren onari:

Lenengoa, Jaungoicoa gauza guziac baño gueiago maitatzea.

Bigarrena, aren izen santua alperric ez aitatzea.

Irugarrena, jaiegunac santificatzea.

Laugarrena, aita ta ama onratzea.

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

(1) Contriziozco Eguintza onec serbi dezaque estutasunetan, baita maiz esateco ere, bere bi tartez, alic lenen, Jaungoicoaren graziara biur tu dediñ, pecatu mortalen bat eguiteco zorigaitza izan duana.

**Penitentzia edo Confesioeo
Sacramentua**

34. G. *¿Penitentzico Sacramentua zertaco da?*

E. Bataioa ezqueroco pecatuac barca-
tzeco.

35. G. *Eriozco pecatua edo mortala ¿zer da?*

E. Da esatea, eguitea, pensatzea edo deseatzeta zerbait Jaungoicoaren leguea-
ren contra gauza andian.

36. G. *¿Penitentzico Sacramentua noiz artzen degu?*

E. Ondo confesatu ta absoluzioa ar-
tzen degunian.

37. G. *¿Zenbat gauza bear dira Pe-
nitentzico Sacramentua artzeco, edo bat
ondo confesatzeco?*

E. Bost, eta dira: Contzientzico esa-
miña, pecatuen damua, ontzeco asmo
edo propositua, aozco confesioa eta pe-
nitentzi edo satisfazioa.

Esamiña

38. G. *¿Esamiña zer gauza da?*

E. Da, confesatu gabeco pecatuac go-
goratzen bear bezela saiatzea.

*38. G. *¿Esamiña nola eguiten da?*

E. Lenbizico escatu arguia Jaungoicoari pecatuac ezagutzeco; guero aztertu Jaungoicoaren eta Eleiziaren aguinduac, ibilli dan lecuac, izan dituzan eguinquinzunac, zenbat aldiz uts eguin duan conaturaturic.

Damua

39. G. *¿Damua zenbat eratacoa da?*

E. Bitaricoa, contriziozco edo maite-tasunezcoa, eta atriziozco edo bildurrezcoa.

*39. G. *¿Contriziozco edo maitetasunezco damua zer gauza da?*

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, bera oso ona dalaco, confesatu, biziera ondu ta penitentzia cunplitzeco asmo sendoaz.

40. G. *¿Eta atriziozco edo bildurrezco damua zer gauza da?*

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, pecatuaren ichusqueriagatic, edo infernuaren beldurrez, edo zerua galdu dualaco, confesatu, biziera ondu eta penitentzia cunplitzeco asmo sendoaz.

41. G. *¿Damua noiz iduqui bear da?*

**Penitentzia edo Confesioeo
Sacramentua**

34. *G. ¿Penitentzico Sacramentua
zertaco da?*

E. Bataioa ezqueroco pecatuac barca-
tzeco.

35. *G. Eriozco pecatua edo mortala
zer da?*

E. Da esatea, eguitea, pensatzea edo
deseatzea zerbait Jaungoicoaren leguea-
ren contra gauza andian.

36. *G. ¿Penitentzico Sacramentua
noiz artzen degu?*

E. Ondo confesatu ta absoluzioa ar-
tzen degunian.

37. *G. ¿Zenbat gauza bear dira Pe-
nitentzico Sacramentua artzeco, edo bat
ondo confesatzeco?*

E. Bost, eta dira: Contzientzico esa-
miña, pecatuen damua, ontzeco asmo
edo propositua, aozco confesioa eta pe-
nitentzi edo satisfazioa.

Esamiña

38. *G. ¿Esamiña zer gauza da?*

E. Da, confesatu gabeco pecatuac go-
goratzen bear bezela saiatzea.

*38. G. *¿Esamiña nola eguiten da?*

E. Lenbizico escatu arguia Jaungoicoari pecatuac ezagutzeco; guero aztertu Jaungoicoaren eta Eleiziaren aguinduac, ibilli dan lecuac, izan dituzan eguinquinzunac, zenbat aldiz uts eguin duan conaturaturic.

Damua

39. G. *¿Damua zenbat eratacoa da?*

E. Bitaricoa, contriziozco edo maitetasunezcoa, eta atriziozco edo bildurrezcoa.

*39. G. *¿Contriziozco edo maitetasunezco damua zer gauza da?*

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, bera oso ona dalaco, confesatu, biziera ondu ta penitentzia cunplitzeco asmo sendoaz.

40. G. *¿Eta atriziozco edo bildurrezco damua zer gauza da?*

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, pecatuaren ichusqueriagatic, edo infernuaren beldurrez, edo zerua galdu dualaco, confesatu, biziera ondu eta penitentzia cunplitzeco asmo sendoaz.

41. G. *¿Damua noiz iduqui bear da?*

E. Confesoreac absoluzioa eman baño len.

Asmoa

42. G. *¿Ontzeco asmo edo propositua zer gauza da?*

E. Beñere pecatu larriric ez eguiteco asmo erabaqui bat.

Confesioa

43. G. *¿Aozco confesioa zer gauza da?*

E. Engaño ta guezurric gabe, pecatu larri guziac, confesoriari aitortzea, penitentzia cunplitzeco asmo sendoaz.

Penitentzi edo satisfazioa

44. G. *¿Penitentzi edo satisfazioa zer gauza da?*

E. Penitentzizco eguinquizunaquin pecatuacgatic zor zaion pena, Jaungoicoari ordaintzea, confesoreac ematen duan penitentzia beteaz.

Eriotzco irrizcoan

45. G. *Eriozco irrizcoan, batec confesoreric ezpadauca, ¿zer eguin bear du?*

E. Contriziozco eguintz bat, confesatzeco asmo erabaquiaz. (1)

(1) Icusi bitez 27 eta 28 garren zenbatqui edo numeroac 11, 12 eta 13 garren orri aldietan.

**Comunioeo Sacramentu guziz
Santua.**

46. G. *Comunioeo Sacramentu guziz
Santua izertaco da?*

E. Bear dan prestaeraz artzen degu-
la, gure animen janari izan dediñ, eta
grazia gueitu dizagun.

47. G. *¿Animaren aldetic zer presta-
era bear da?*

E. Jaungoicoaren grazian egotea.

48. G. *Eta pecatu larriren batean ero-
ri dana ¿comulgatzeco nola prestatuco du?*

E. Confesatuta.

49. G. *Eta gorputzaren aldetic ¿zer
prestaera bear da?*

E. Eldutzea (Comunioa Elizacoac
emateco ezpada) baiauric, ezer ere jan
ez eran gabe, aurreco gabeco amabiac
ezquero.

50. G. *¿Zer artzen dezu Comunioeo
Sacramentu guziz Santuan?*

E. Aldareco Sacramentu guziz San-
tuan eguiaz dagoan Cristo, Jaungoico ta
guizon eguizcoa.

51. G. *Eta esandaco prestaera gabe*

Comuniora eltzen danac ere, jartzen du Jesu-Cristo?

E. Bai, Aita, baña ezeren ere probechu gabe, pecatu guziz andi bat eguiten du ta.

Pecatu guzien aitortzea

Ni, pecatari onec, aitortzen diot Jaungoico Guzialdunari, Maria doatsu beti Birjiñari, San Miguel Goiaingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Paulo Apostoluai, Santu guziaz, eta zuri, Aita, eguin dedala pecatu asco ta asco gogorazioz, itzez eta eguitez, nere erruz, nere erruz, nere erru guziz andiz: argatic erregutzen diot Maria doatsu beti Birjiñari, San Miguel Goiaingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Paulo apostoluai, Santu guziaz, eta zuri, Aita, erregutu deguiozula nigatic Jaungoico gure Jaunari. Amen.



— **Pasiño Santuaren Contaera**, Aita Luis de la Palma gandic, eusquerara biurtua, 3 p.— **Bere salbazioa segurutu nai duan Maria-ren Debotoaren Astea**, 0,25 p.— **Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren Bizitza**, 0,35 p.— **Jesusen Biotz Santuaren Bederatzi Urruna**, 0,25 p.— **Purgatorioco Arimen Bederatzi Urruna**, 0,25 p.— **Ama Virjiña Doloretacuen Bederatzi Urruna**, 0,25 p.— **San Antonio Urkiola-kuari Bederatzi Urruna**, 0,25 p.— **Cristinaubaren Jaquinbidea Aita Astete-c erderaz eguiña**, ipini eban bizkaiko euzkeran D. J. Antonio Moguel ta Urquizac, 0,25 (eun 15 p.)— **Aita Gaspar Astete-ren Cristiñau Dotrinia**, **Laudioco Abade Jaunen encarguz ta costuz arguitara urten ebana**, 0,25 p.— **Cristiñau dotriña**, urten dau arguira barrero **Busturico Bicariaco Abade Jaunen encarguz**, 0,25 p. (eun 15 p.)— **Cristinaubaren Dotriniaren esplicacinua eusqueras D. Mar-**

tin **Arzadun**, Arima jagoliaz ipiniya, 0,25 p. (eun 15 p.)—Felipe Arrese ta Beitiak eginiko **Ama euskeriaren liburu Kantaria**, 3 p.—**Kresala**, Domingo Agirre Abadeak egindako Irakurgetia, 2,50 p.—**Peru Abarca**, Moguel Abadeac egindaco Irakurgetia, 2,50 p.—**Josecho**, Jose Manuel Echeita Jaunak egindako Irakurgetia 3 p.—**Jayoterri Maitia**, Echeita Jaunak egindako Irakurgetia, 2,50 p.—Kiristiñauen irakazterako, euskel Orri egoki asko, (eun peseta bat).—**Elex-Abestijak**, Bizkaiko euskeraz, 0,65 p.—Ondo confesau ta Comulgauteco **Iracazquizonac**, Jesus' en Lagundico A. Candido Basabe'cuac, Ejercicio ta Misiñuetan azalduten dauzan leguez. (Ause da baserrietaraco Mesa liburnen artean egoquiena.)

Laster argitaratuko da etse onetan **GAROA**, Domingo Agirre Jaunak egindako Irakurgetia.